

Liburuak


KRITIKA

Ikusezin.

Paul Auster (Itzulpena: Oskar Arana).
Alberdania. 288 orrialde. 18 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



“Bizitza bakoitza behin gertatu zen istripu baten emaitza da” (Paul Auster)

BEHIN, PAUL AUSTERREK ateraldi bat egin zuen basoan barna. Bertan, kasualitateetan eta ustekabeko gertaeretan ezkututzen den zeinu-sistema misteriotsu bat topatu zuen. Denborarekin, hura bilakatu zen, mundua islatzeko baliatuko zuen hizkuntza. Badira barrea eragiten dizuten kasualitateak baina, era berean, badira heriotza eragiten dizutenak. Zoriaren hizkuntzak, giza-haustasuna esan nahi du gure ohiko hizkeran, eta elementu horren indarrak, bere obrak darion esentziaren osagai garrantzitsuenetako bat osatzen du.

Kaleratu duen azken eleberririk badu horretaz eta beste hainbatez. Egia esateko, azken lanekin erkatuz –gure idazlearen irudimen jariora agortzen hasia zelaren seinale ziruditenak–, *City of Glass* (1985) edota *Oracle Night* (2003) lanetako Paul Auster baten arrastoak berreskuratu eta, askoren ustez, gainditu egin ditu. Alberdaniaren eskutik argitaratua eta Oskar Aranaren itzulpen lanari esker, *Ikusezin* izenburuaz euskaratua heldu zaigu, beste behin, errealitatea eta fikzioaren mugak lausotzen dituen, “matrix” austeriarraren zentroan koka genezakeen, eredu bikaina.


Grosso modo esanda, liburua lau zatitan banatua dago, baina narrazio gainjarrien erabilerak, testu bikoitzarekiko jolasa baimentzen du. Adam Walker 1967an, literatura ikasten duen 20 urteko gaztea da. Gau batean, Rudolf Born eta Margotek osatutako bikote frantsesa ezagutuko du eta harez geroztik, gure protagonistaren bizitza ez da berdina izango. “Zerbait gertatzen da eta, gertatzen hasten den momentutik, ezerk ezin du izan berriro berdin” aipatu zuen idazleak.

Kontatzen zaizkigun Walkerren gaztaroari buruzko gorabeherak, etorkizuneko eleberririk baten bilbea osatzen dute. Hau da, irakurtzen duguna, 2007an hiltzorian dagoen Adam Walkerren, 1967 izeneko eleberria izango denaren eskuizkribua da. Hiru narrazioetan –udaberria, uda eta udazkena– James Freeman izeneko idazle ospetsu bati, hark berrikeria dezan, bidaltzen dion gauzatu gabeko proiektu baten zirriborroa. Beraz, irakurle bezala bereganatzen dugun istorioaren trama, zuzendu eta osatu beharreko narrazio-testua bilakatzen da. Eleberririk baten eraketa prozesuaren lekuko bihurtzen gaitu: lekukotasun idatzien itzulpenak, beste narratzaile batek osatutako hiltzori baten oharrrak, egia kontatua gezur bihurtu nahi duten pertsonaia eta lekuen izen aldaketa. Zein da Walkerren istorioari zor zaion sinesgarritasun maila? Dena? Batere ez? Edo irakurleak berak eskaini nahi diona?

Ongi etorriak Paul Austerren mundura. ■

Erdozaintzi-Etxarten biografia

Mende laurden joan da Manex Erdozaintzi-Etxart hil zenetik. Ibarlan sortu zen fraide eta kultur gizonaren biografia plazaratu du orain Agurtzane Ortiz Lopetegik, Elkar argitaletxearen *Lurra eta jendeak* sailaren barruan. Liburuaren asmoa honakoa da: Erdozaintzi-Etxarten dimentsio ugarietara hurbiltzea. Izan ere, apaiz lanetan aritu baitzen, baina baita psikologo, pedagogo eta irakasle ere. Eta, noski, idazlea izan zen: bizi osoa eskaini zion literaturari. Biografiak haren testuetatik bidaiatzeko proposamena luzatzen du, idazlearekin batera haren garaia eta gertakariak ezagutzuz. ■



Manex Erdozaintzi-Etxart, herriaren poeta.
Agurtzane Ortiz.
Elkar.
250 orrialde.
19,50 euro.

2008ko liburugintzari errepaso 'Jakín'-en

Jakín aldizkariaren 176. zenbakiak 2008ko euskal liburugintza du gai nagusi. Joan Mari Torrealdaik urtero egin du errepaso hori, berak artikularen hasieran aipatzen duen legez, duela 32 urtetik. 2008an argitaratu ziren liburuen azterketa sakon eta zorrotza eskaini du oraingoa ere, hainbat infogramaren bidez jantzia. Horrekin batera, Koldo Gorostiagak eta Elena Belokik artikulua plazaratu dute, euskal gatazkan Europar Batasunak eskaini ditzakeen aukerei buruz. *Egunen gurrpilean* sailean berriz, Haizea Barcenillak, Iñaki Irazabalbeitiak, Goizalde Landabaskok, Lionel Jolyk eta

Josu Larrinagak idatzi dute. ■



Jakín 176.
Batzuen artean.
Jakín.
108 orrialde.
12 euro.